

Bake eta bizikidetzaz jardunaldiak Urnietan, datozen egunetan

Urnietako Udalak jardunaldien hirugarren edizioa martxan jarriko du egun hauetan.

Larunbat honetan eta datorren asteko ostegunean ikus-entzuzko eta hitzaldi interesgarriak eskainiko dituzte Sarobe antzokian. Giza eskubideen urraketen biktima izan diren esperientzia edota Errenterian memoria lantzeko aurkeztu berri duten txostena ezagutzeko aukera izango da. Bi jardunaldi horien dinamizatzailea Baketik erakundea izango da.

Urnietako Udalean ordezkaritza duten hiru alderdiek bat egin dute ekimenarekin, eta Mikel Pagola alkateak herritarrei bi ekitaldietan parte hartzeko gonbitea luzatu zien.



Iker Usón Baketik erakundeko ordezkarria, Mikel Pagola alkatea (EAJ), Consuelo Frutos (PSE-EE) eta Mikel Izagirre (EH Bildu) jardunaldien aurkezpen ekitaldian.

Baketik erakundeko Iker Usonek adierazi zuenez, Urnietan jardunaldiak antolatzeke dagoen adostasuna nabarmentzekoa da.

Urtarrileko bi hitzordu hauek aurreko azaroan antola-

tu zen bake-pintxo foroan proposaturikoak dira. Orduan bildutako herritarren iritzia eta ideiak kontutan hartuta, ikus-entzuzko eta hitzaldia antolatu dituzte. Ez dira 2016ko ekitaldi bakarrak izango.


BI HITZORDU

DOKUMENTALA

“Glencree, (bake prozesua), elkarrekin egindako bidea” dokumentala eta ondoren solasaldia. 11:00-12:30. Sarobe. Urtarrilak 23, larunbata.

HITZALDIA

Bi esperientzien berri emango da: “Memoria landu: zergatik eta zertarako”, Aintzane Ezenarro Gogora institutuko zuzendariaren eskutik. Jarraian, “Memoria partekatu bate-runtz” Sabino Ormazal Argituz ekimeneko kidearen aldetik. 19:00-20:30. Sarobe. Urtarrilak 28, osteguna.



Pailazoen bisita Basterora

Ostiralean eta larunbatean Basteroko auditorioan Pirritx eta Porrotx pailazoek ikuskizun berria taularatu dute, “Amalur” izenekoa. Denera hiru saio eskainiko dituzte, ondoren DVD formatuan argitaratu dute. Larunbaterako saioetara moztortuta joateko deia egin dute.

[AGENDA, 12. ORRIALDEA]

Mozorro desfilea Andoainen

Otsailaren 6an Andoaingo kalean inauterietako egun handia ospatuko da. Desfilean izena emateko epea ostiral honetan amaituko da. Taldeen izena emateko Basterora joan behar da

[ANDOAIN, 8. ORRIALDEA]

Nahikari Garcia, Realeko jokalaria

Elkarrizketa sakona Urnietako jokariari. Gaztea izanik ere, futboleko eskarmendu handia du.

Medikuntza ikasketak burutzen ari den bitartean, Realeko lehen taldean eta Espainiako selekzioarekin ibilbide oparoa egiten ari da: “Ikasketak gogorak dira, bai, ordu asko eman

behar dira liburuekin, baina era berean asko ikasten ari naiz, alor askotan. Hartu behar nuen trena zen, hartu dut, ikasketak gaintzen ari naiz... Gustura nago”.

Kirol arloan hirugarren urtea du Realeko lehen taldean, eta 18 urterekin dagoeneko taldeko erreferentzia nagusietakoa da.

[KIROLA, 10-11. ORRIALDEAK]

EGAPE IKASTOLA
BIZITZARAKO HEZKUNTZA

MATRIKULA ZABALIK!

URTARRILAREN 25etik OTSAILAREN 5era

BILERAK 2 URTEkoentzat: urtarrilak 26, Etxeberri Plaza, 17:00 h.

BILERAK DBHkoentzat: urtarrilak 25, Azkorte, 17:00 h.

WWW.EGAPE.ORG

ELUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

50 EGAPE IKASTOLA 50 urte bidean

SARE EUSKAL PRESOEN ESKUBIDEEN ALDEKO EKIMENA DA

Teresa Toda, Sare mugimenduko bozeramailea

Sare elkarteak deituta, aurreko Urtarrilaren 9an, Baionan eta Bilbon presoen hurbilketa, gaixorik daudenen kaleratzea eta salbuespeneko legedia bertan behera uzteko eskatuz egindako manifesta-

zioetatik egun gutxira, Teresa Toda urnietarrarekin, Sareko kide eta bozeramaile denarekin hitz egin du Aiurrik. Sareko kideak lanean jarraitzeko gogotsu daude.

Noiz sortu zen Sare?

Teresa Toda: Sare, 2014ko martxoan sortu zen, San Telmo adierazpena deiturikoarekin. Bertan, ideologia ezberdinetako pertsonak biltzen gara, presoak, eta hauen senideen egoera larriari erantzuna eman nahian. Norbanakoez osatuta dago, ez dago inolako motako elkarerik bertan.

Zein dira Sareren helburuak?

T.T.: Nagusiki, hiru: dispertsioarekin bukatzea, gaixorik dauden presoak kaleratzea eta salbuespeneko legedia bertan behera gertatzea.

Eta hori lortzeko, nola antolatzen du Sare bere lana?

T.T.: Gure lana, herrietan eta auzoetan taldeak sortuz gauzatu nahi dugu. Dagoeneko, ehundik gora herrietan osatu dira lan taldeak. Urnietan ere sortu nahi dugu datozen hilabeteetan.

Zein da herritarrengan ikusten duzun jarrera?

T.T.: Euskal Herrian jendeak badaki dispertsioa badagoela, baina, ez da jabetzen horrek benetan zer esan nahi duen, eta gure lana da errealitate hori jendartearatzea. Giza-eskubideez ari gara, horregatik, gai hau utzi nahiko genuke politikakerietatik at. Eskubide urraketa larria gertatzen da, eta horren aurrean herritarrok zerbait egin beharko genuke. Baita alderdiek eta instituzioek ere.

Eta nola doa ibilbide hori?

T.T.: Azken boladan bilakaera bat eman da. Orain, jendearen jarrera irekiagoa da, eta mobilizazioetara joateko prest agertzen dira lehen joango ez zen hainbat pertsona, baina, ondoren, egunerokotasunean jarduteko ez da erraza jendearen inplikazioa lortzea.

Presoen dispertsioarekin amaitzeko eskaera ez da atzo goizekoa...

T.T.: Bai, eta horrek sortzen du ezintasun sententzia bat, baina,



Teresa Toda urnietarra.

badakigu temati izaten bagara, eta lortzen badugu benetako mugimendu indartsu bat, euskal instituzioetara iritsiko dela eta mugiaraziko ditugula. Madrilengan oso fede gutxi daukagu eta horregatik Europatik zehar ondo informatu eta ondorioz hor ere sortzea kontzientzia xedearen artean dago.

Manifestazioen benetako balioaz asko hitz egiten da...

T.T.: Manifestazioak inportanteak dira indar erakustaldi diren neurrian, baina, horren segida ere landu behar da. Sare sozialak hor daukagu eskura, eta bere erabilpenaren onurak ukalezin badira ere, inplikazio zuzena beharrezkoa izaten jarraitzen du, sufrimentua ez baita birtuala.

Asmo horrekin sortu duzue, manifestazioen ondoren aurkeztu zenuen Giza Eskubideen Trena?

T.T.: Urtarrilaren 11n abiatu zen Bilboko tren geltokitik, eta

tren birtual horren helmuga da giza eskubideen errespetua, konponbide ideia baten barruan. Tren hau, herriz-herriz sortuko diren ekimen propio eta bereiztuei jartzen diogun marko orokor baten moduko zerbait da.

Bizi dugun mundu globalizatuan ezinbestekoa da Europara ere begiratzea...

T.T.: Bai, gurekin batera lanean aritu diren jurista batzuk, ondo oinarritutako txosten bat prestatu dute Europara begira. Bertan, Europako azken ebazpenen inguruan beharrezko azterketa juridikoak egin ondoren esplikatzen da nola Espainiako Gobernuak urratzen dituen Europatik datozen lege-arauak. Lan horrekin joango gara Europako jurista elkarteengana, eta instituzio politikoengana. Europatik etorri dira Espainiako gobernuaren erabakien aurkako ebazpenak, Parot doktrina kasu, eta beste batzuk etorriko dira, seguru. Baina, gauza da urteak pasako direla, eta bitartean, presoak eta familiak sufritzen egongo direla.

Sufrimendu asko eragin duen gatazka baten ondorioak...

T.T.: Bai, eta gatazka horren ondorioak konpondu behar ditugu, biktima guzti-guztienak, baita ere, presoak eta haien senideenak. Sufrimentua pilatzen ari da, eta sufrimendu berriak sortzen ari dira. Hau da gaur dagoen sufrimendu iturri bakarra. Hainbatek betiko beraiekin izango du sufrimentua, hori horrela da, baina, sufrimendu berriak sortzen ezin da jarraitu. Hor, gorrotoa eta mendeku gosea dago.

Badira 20 urte Teresa Urnietara bizi-zera etorri zela, baina horietatik sei espetxean pasa zenituen Egin kasuaren baitan.

T.T.: Bai, horrela da, eta Urnietan geratu nahi dut betiko, herri lasaia eta ondo komunikatua da. Espetxeke urteei dagokionez, bi urtetan egon nintzen Salamanca-

“Dispertsioarekin bukatzea, gaixorik dauden presoak kaleratzea eta salbuespeneko legedia bertan behera gertatzea, horietatik gure helburu nagusiak”

ko Topaseko espetxean, eta ondoren beste lau urte Cordoban.

Dispertsioa lehen pertsonan ezagutu zenuen. Nola bizi zenuen hori?

T.T.: Kezkaz bizi dugu, batez ere neguan, telebistan eguraldi txarra iragartzen ikusitakoan, maiz presoak deitzen diogu familiarrei edo lagunei ez etortzeko esanez, baina, normalean oso tematiak jartzen dira eta bisita pentsatutako moduan gauzatzen dute. Iristen ez badira hitzordura, kezka izugarria sortzen da. Niri pare bat aldiz gertatu zitzaidan. Ez dakizu zer gertatu ote den. Deitzeko aukerarik ez dagoenez, hor geratzen zara telebistari begira ea edozein momentutan istripuren baten berri emango ote duten. Kezka ekonomikoak ere presente egoten dira, bisitak garesti ateratzen direlako. Gurasoak zahartzen joaten dira eta aurrez aurrekoak galtzen hasten dira, gaixotasunengatik eta abar. Haur txikiak dituztenentzako ere oso gogorra da, imajina ezazu Donostian bizi den haur bat Cordobara edo Algecirasera joatea aitarekin edo amarekin hiru orduko bisita baterako.

Nola bizi izan zuen familiak zure espetxealdia?

T.T.: Gure ama zendu berria da, baina preso nengoanean bizirik zegoen eta berak ere galdu zituen pare bat aurrez-aurreko gaixorik zegoelako. Berarentzako oso gogorra izan zen ni kartzeleratzea. Salamancan bizi zen, oso pentsaera ezberdinekoa zen. Nire bi nebak eta ahizpa ere bisitan izaten nituen, nahiz eta haiekin ere diferentzia ideologiko sakonak eduki. Horrek emozio handia sortzen zidan, baina, hori beste balore erantsi bat da. Hor ikusten baita senideen arteko maitasuna ideologia guztiak gainditzeko gai dela.

Beraz, esango zenuke zure bizitza pertsonalerako alde aberasgarria ere izan duela?

T.T.: Gogorra baina aberasgarria. Espetxe barruan egindako harremanak ere oso inportanteak dira preso baten bizitzan egunerokotasunean beraiekin zaudelako, eta egoerari aurre egiteko beharrezkoak direlako. Baina, familikoez gain, pozez hartzen dira lagunak eta ezagunen bisitak. Esker oneko sentimendu oso sakon bat sortzen dute eta ateratzean ez dakizu nola eskertu. Niri behintzat hori gertatzen zait, nigatik egindako guztia ez dakidala nola eskertu. Horrek barnean aldaketa bat eragiten du, eta jendearekin, orokorrean, gozoago eta irekiago izaten ikasten da.



Aurkezpen ekitaldi ugari egin dituzte Euskal Herrian barrena.

Legegintzaldi planaren aurkezpena Lekaion

Gobernu taldeak Legegintzaldi plana aurkeztuko du ostegun honetan, urtarrilak 21, Lekaion iluntzeko 19:00etan hasita. Aurkezpenean, Udalak ohar bidez adierazi bezala "Gobernu

taldearen misioa (legegintzaldi honetan garatuko duen jardura), bisioa (legegintzaldian izan nahi duen egoera deskribatzen du) eta balioak" zeintzuk diren zehaztuko dituzte.

EH Bilduren batzar irekia

"EH Bilgunea" delako batzar irekia deitu du EH Bildu koalizioak ostegun honetarako.

Urtarrilak 21, osteguna. Lekaio Kultur etxea. Arratsaldeko 19:00ean hasita.

Donostia 2016rako lanean

Andoainen egoitza nagusi duen eta Urnietako Juntxo Sardon buruetako duen **Pixel ekoizpen etxeak** Donostia 2016 fundazioaren telebista programa berritzailea ekoiztuko du. Egindako nazioarteko deialdi baten ostean, Pixel ekoizpen-etxea hautatu du nazioarteko epaimahai batek bere proiektu "La Capsula" garatzeko. Proiektuaren xedea masa hedabide nagusiaren hezkuntza ahalmena azpimarratzea da, telebista formatu berritzaile baten bidez.

Guztira 15 ekoizpen-etxek aurkeztu zuten haien proposamena eta aurreko astean eman zuten aditzera erabakia. Fundazioak ohar bidez adierazi bezala: "La Capsula izeneko proposamenarekin kultura eta dibertsitatearen aldeko apustua egingo da, legatua eta jarraitutasuna ardatz direla".

Laster programa pilotua aurkeztuko da eta EITBk telebistan eskainiko du, Cannese-ko nazioarteko MIPTV telebista jaialdi ospetsura eraman aurretik.

Harrera beroa antzezlanari



Pasa zen ostiralean Sarobe ia bete egin zen "Heroiak" antzezlanaren aurre estreinaldia ikusteko. Ordu eta erdiko emanaldiaren amaie-

ran txalo zaparrada handia jaso zuten Kandido Uranga, Joxe Ramon Soroiz eta Ramon Agirre obrako hiru aktoreek.

Asteburuetan irekita dago Andoaingo bidean dagoen pabilioia

Saltoki berria beherapen handiko produktuekin

Subastas Business BBB izeneko enpresa ireki berri dute Erratzu poligonoan. Ohiko dendetan baino merkeago saltzen dituzte produktuak, %80ko deskontua izatearaino. Elektrodomestikoak, altzairuak, arropa... Etxerako produktuak saltzen dituzte bereziki, eta guztiak modu onean. Produkzio handiko enpresei materiala erosi ondoren, beherapen handiekin jartzen dituzte salgai; %30, %50 eta %80ko deskontuak ere badituzte zenbait produktutan.

"Prezio ona eskaintzen saiatzen gara; esate baterako, ohiko denda batean 1200 eurotan saltzen duten sofa bat, hemen 700 eurotan saltzen dugu. Orokorrean, prezio guztiek dute beherapen handia", azaldu du Xabier Igoa langileak. Prezio onaz gain, ondorengo mantenua ere eskaintzen dutela azaldu du, produktu guztiek baitute urtebeteko bermea.

Otsailetik aurrera, altzairu asko salgai jarriko dituztela jakinarazi dute: haurrentzako logelak, sukalde eta egongeletarako mahaiak, etxerako bestelako altzairuak... Etorkizunean arropa gehiago ekartzea ere aurreikusi dute: "Oraindik hasi besterik ez gara egin, eta denborarekin, gero eta produktu gehiago saltzen hastea da asmoa".

Beraien helburua astebukerara bakoitzero produktuak aldatzen joatea da, erosleak, joaten den aldiro, zerbait berriarekin topo egin dezan. Produktu batek bi edo hiru aste baino gehiago ez dituela iraungo jakinarazi du: "Gure filosofia hori da, ia astero produktuak aldatzen joatea. Ea horrela jendea erakartzen dugun".



Etxerako produktuak saltzen dituzte bereziki.

Salgai dauden produktuak ikusteko, laster www.outletbbb.com webgunea martxan jarriko dute, bertan herriarrek produktu guztien argazkiak eta informazioa ikusi dezaten.

HARRERA ONA

Eguberrien atarian ireki zituzten ateak, eta Xabier Igoak adierazi duenez, jende ugari gerturatu da ordutik. Publizitate orriak jaso dituzten eta ahoz aho enpresaren berri izan duten tokietatik, batez ere, herriar asko gerturatu dela azpimarratu du. Lehenengo aste hauek "oso ondo" joan dira: "Krisi ekonomikotik ateratzen

ari garela esango nuke; jendeak, behintzat, gastatzeko jarraera erakusten baitu. Lehen zuhurrago jokatzaren baguenen ere, orain errazago saltzen da, eta hori seinale ona da".

Negozioa ondo joanez gero, EAEko hiru probintziatan jarri nahi dute lokal bana: "Gipuzkoakoa Urnietan dago. Kokapen egokia du, batez ere, Donostiatik gertu dagoelako", azaldu du Xabi langileak.

JENDAURREKO ORDUTEGIA, ASTEBURUETAN

- Ostirala: 16:00-20:00.
- Larunbata: 10:00-14:00, 16:00 - 20:00.
- Igandea: 10:00-14:00.



Xabier Igoa langilea.



FUTBOLARIAK eta PRINTZESAK

Parekidetasunean eta berdintasunean hazi eta hezteko antzezlan

Urtarrilak 24,
igandea

Sarobe AEG

17:30etan

Sarrera 3 €



URTARRILAREN 28KO BATZARRALDIAN AURREKONTUA EZTABAIDAGAI IZANGO DUTE

Aurrekontua onartzeko akordioa aurkeztu dute

2012az geroztik Udal aurrekontua luzapen egoeran zegoen, kasu banetan Gipuzkoan. Blokeo egoera hori gainditu dela dirudi, eta Andoainen gaur egun Udal ordezkariak duten bost alderdietatik lau-

rek Udal aurrekontu proposamenarekin bat egingo dutela iragarri dute. PSE-EE alderdiak gaiari buruzko agerraldia iragarri du ostiral honetarako, bere egoitzan.

Urtarrilaren 15ean EH Bildu, EAJ-PNV, Ganemos eta Irabazi alderdiek prentsa agerraldia deitu zuten, Udal aurrekontuaren inguruko akordioaren berri emateko. Bozeramaile lanetan aritu ziren **Ana Carrere**, **Marijo Izagirre** eta **Jorge Mourinho**. **Olga Hernandez** ondoezik zegoen arren, akordioari atxekimendua idatziz helarazi zuen. Gobernagarritasuna bermatzeko akordioa aurkeztu zuten, oinarri sozial eta ekonomiko indartsuak dituenak. Onartutako Udal aurrekontu berrietan premian diren herritarrak oso kontutan hartuko dituzte, eta merkataritza edota enplegua sortzeko neurri zehatzak iragarri dituzte. Horrez gain, ur azpiegitura sarea lau urtetan berritzeko adostasuna lortu dute. Gauzak horrela, eta maileguen bitartez bada ere, hainbeste burukomin sortzen dituen ur azpiegitura sarea datozen lau urteetan eraberritzeko konpromisoa hartu dute.

Aurrekontuaren agerraldian adostasun zabala irudikatu zen. Sintonia ona zegoela zirudien. Gehiengo osoa ziurtatzen duen EAJ-PNV alderdia, ordea, Udal aurrekontua onartzeko konpromisoa urte urte betetzearen aldekoa da. Udal aurrekontuaren betetze mailaren araberakoa izango da bere baiezkoa, agerraldian aditzera eman zuten.



Marijose Izagirre (EAJ-PNV), Ana Carrere (EH Bildu) eta Jorge Mourinho (Irabazi) aurreko ostiraleko agerraldian.

Agerraldian egindako adierazpenetan, Ana Carrere alkateak lortutako akordioaren garrantzia azpimarratu zuen: "Aurrekontu berriak udalderriak dituen erronka nagusiei irtenbidea ematen hasteko tresna lagungarria izango da. Lortutako adostasun eta babes mailari garrantzia eman nahi diot, eta datozen urteetan norabide berean jarraitu beharko dugu".

Marijose Izagirrek akordioan parte hartu duten lau alderdiak zoriondu zituen, "ezberdinen arteko elkarlana bultzatu eta adostasunaren kultura

praktikan jarri baita. Denon ekarpenak kontutan hartuz aurrekontu errealistak adostu ditugu".

Ganemos alderdiko Olga Hernandezek idatziz bidalitako oharrean aitortzen zuen ez zegoela proposamenarekin %100ean ados, "baina hala eta guztiz ere, aurrekontu berriak Andoainek dituen beharretatik gertuago daude. Eta gainera kontsentsu zabal batekin adostu dira".

Irabazi alderdiko Jorge Mourinhok, azkenik, kudeaketa erraztearen aldeko jokabidea erakutsi zuen.

ADOSTUTAKO AURREKONTUAREN ATAL NAGUSIAK

- Ur hoderiaren egingo dituzte inbertsio nagusiak: "Agintaldi osorako inbertsio plan bat adostu da, eta 2016an ur hoderiaren berrikuntzarako lehenengo fasea burutuko da. Partida 1.300.000 eurokoa izango da.
- Kale argiteria berritzeko, milioi bat euroko partida bat sortu dute. Farolak LED sistemara pasako dituzte.
- Gizarte larrialdietarako laguntzak igoko dituzte. Partida hori 211.000 eurokoa izango da 2016an.

"Aurrekontuarekin lortutako adostasun eta babes mailari garrantzia eman nahi diot, eta datozen urteetan norabide berean jarraitu beharko dugu"

Ana Carrere, alkatea

- Txipa duen bosgarren edukiontzia marroia ezartzeko 90.000 euroko partida sortu da.
- Udal eraikin eta espazio publikoen konponketa lanak burutuko dira: Herri bideetarako 200.000 euro, Joakin Larreta konpontzeko 400.000 euro, makaldegiko estalpea eta komun publikorako 125.000 euro, eta 550.000 euro gehiago Allurralde kiroldegian eta Arrate frontoian egin beharreko hobekuntza lanetarako.
- Sustapen ekonomikoari bultzada emango diote: Eskualdeko garapen agentzia martxan jarri ahal izateko 30.000 euro, tokiko merkataritza sustatu ahal izateko 25.000 euro, Otietako bisitarien etxea (Leitzarar) martxo-urria bitartean irekitzeko 53.000 euro, etab.
- Plan eta diagnostiko ezberdinak lantzeko konpromisoa hartu dute: gazte plana, berdintasun plana eta etxebizitza hutsen diagnostikoa, besteak beste.

Datorren asteko Aiurri,
Joseba Maizari elkarrizketa:
Lesbos uhartean errefuxiatuekin
egindako sorospen lanak
hizpide hartuta

Aiurri



Amalur ikuskizuna Basteron, asteburu honetan



Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoen Amalur ikuskizun berria eskainiko dute asteburu honetan Basteron. Bi egunetan hiru saio egin dituzte, eta emanaldi horiekin DVDa osatuko dute. Guraso eta haur askok ondotxo dakiteenez, ikuskizun berrian ama-

lurra eta baserria oinarri hartuta naturaren inguruko gogoeta egiten dute ilargia, baratzeako produktuak, animaliak eta sendabelarrak bezalako gaiak landuz.

Astea hasieran sarrera gutxi geratzen ziren salgai, ostiraleko saiorako.

Doako psikomotrizitate tailerra La Salle Berrozpen

La Salle Berrozpe ikastetxeak psikomotrizitate tailerra antolatu du ostegun honetarako, 2013 eta 2014 urteetan jaiotako haur guztiei zuzenduta. Doakoa da. Arratsaldeko 16:45ean hasiko da La Salle Berrozpe ikastetxean. Es-

pero baino parte-hartzaile gehiago izanez gero, beste tailer bat eskainiko litzateke arratsaldeko 17:30ean hasita. Familiek seme-alabekin parte hartuko dutenez, gurasoek haurrak estimulatzeko teknika berriak ikasiko dituzte.

Ate irekiera jardunaldia Aita Larramendi ikastolan

Larunbat honetan 2014an jaiotako haurren familiei zuzendutako jardunaldi irekia antolatu dute Bazkardoko eraikinean. 10:30ean hasita ikastolaren antolaketaren,

zerbitzuen nahiz metodologiaren berri emango da. Egun horretan azaldu ezin izango dutenentzat informazioa eskuragarri dago andoainkastola.eus webgunean.

Salkineko Gabonetako saskien irabazleak

Gamer: Bakarne Lasarte. Inter (2): Lidia Gonzalez. Xare: Inma Urkijo. Ormendi Kirolak: Amaia Arsuaga. Izeia: Ana Garcia. Mendi autoeskola: Amagoia Las. Amantegi: Aitziber Iturrizar. Ondarreta: Amaia Zubeldia. Mapfre: Arantxa Urretabizkaia. Etxeberria Hiru: Loli Herrojo. Iturbe: Conchi De La Fuente. Arberas: Fernando Setien. Ciclos Patxi: Mari Carmen. Adats: Neide Garmendia. Ernaitza: Rosa M^a Gonzalez. Andoni Etxeberria harategia: Tere Donado. Francis boutique: Virginia Her-



nandez. Kurpil Garmendia: Jose Luis Larrarte. Stop: Teodora Leunda Elola. Edergai: Africa. Olloki: Javier. Maindi optika: Kizkitza Alfonso. Nerea arrandegia: Charo

Alonso. Godoy: Mari Carmen Etxaide. Nuevo Siglo: Mikel Altuna. Pepi: Ismael Alonso. Pottoko: Marisol Suescun. Sendaki: M^a Luisa Arribillaga. Zabala bitxidenda: Aitor Franco Burgos. Ogi Donosti: Jabier Audikana. Jauregi drogueria: Juani Iztueta Arriola. Javier Cermicas: Laura Vicente. Anita goxotegia: Tere Casado.

Ipar Haizea plataforma aurreko larunbatean aurkeztu zuten

Erraustegiaren aurkako plataforma sortu dute



Nafarroa plazan aurkeztu zuten plataforma berria, eragile ekologista ezberdinak eta herriarrak bere baitan biltzen dituen.

Aurreko larunbat eguerdian Nafarroa plazan herritar talde batek Ipar Haizea izeneko plataforma berriaren aurkezpena egin zuen, nagusiki Zubietan eraikitzeko den erraustegiaren aurka arituko dena. Aurkezpen ekitaldira adin eta sektore ezberdinetako herritarrak hurbildu ziren. Sorrera ematen dioten manifestua irakurri zuten euskaraz eta gaztelaniaz, eta bi aurkezpenak txalo artean amaitu ziren. Dagoeneko bi hitzordu antolatuko dituztela iragarri dute. Aurkezpen ekitaldiko bideoa ikusgai dago www.aiurri.com webgunean.

Ipar Haizea plataforma sorrerako adierazpena:

“Azken hilabeteetan abian jarri da, berriz ere, Gipuzkoan erraustegi bat eraikitzeke egitasmoa. Dakizuen bezala, proiektua Zubietan inguruan kokatzen da, Andoaindik oso hurbil. Hain zuzen ere, erraustegi eraikiko den lekutik hiru

kilometro ingurura kokatzen da, ondorioz eragin handiko bost kilometroko perimetroaren barruan.

Mehatxu larritzat jotzen dugu eraikuntza hau oro har gipuzkoar guztientzat eta zehazkiago andoaindarrontzat. Besteen artean, Instituto de la Salud Carlos III erakundeak honi buruz egindako txostenak baieztatzen du erraustegia bezalako azpiegiturek oso eragin larriak dituztela bertatik hogeita kilometro bitarteko eremuan kokaturik dauden hirigunetako gizakien osasunean. Zaborren erretzeak guretzako eta gure ingurumenerako kaltegarriak diren produktuak, kopuru handitan, sortzen ditu. Eta gai horiek, nabarmen handitzen dituzte gizakiongan minbizi mota batzuk edo diabetesa izateko aukerak, are gehiago erraustegitik bost kilometroko ingurunean dauden herrietan, Andoain kasu.

Egoera kezkarriaren aurrean, Zubietako erraustegia-

ren aurkako plataforma bat eratzea erabaki dugu Andoaingo bizilagun talde batek. Plataforma ireki eta anitza, non andoaindar guztiek bere lekua izango duten. Erraustegia proiektuaren bultzatzaileei hausnarketarako deia luzatuko dien giza taldea alternatiba, eztabaida eta negoziatziorako bideak ireki ditzaten, kontuan izanik proiektu honek ingurumenean eta osasunean dituen ondorioek guztioi eragingo digutela.

Horrenbestez, gaur aurkeztu den dizuegu Ipar Haizea herritar plataforma eta, bide batez, dei egiten diegu gipuzkoar guztioi ondorengo deialdian parte hartzera”.

HURRENGO HITZORDUAK

- Otsailaren 20an “Arduraren aldeko giza katea”, 12:00tan hasita Arrate plazan.
- Martxoaren 12an “Osasunaren aldeko martxa”, 17:00tan hasita Etxeberrieta plazan.

Sagardo kata-maridajea Andoainean

19:30. Santa Krutz Peña elkarteak. Otsailak 11, osteguna.

Guillermo Castaños, enologoa Unai Agirre, Sagardogileen elkarteak

Aiurriko harpidedunentzat eskaintza berezia. Doako saioa.

Sagardo ezberdinak dastatzen ikasteko aukera paregabea.

Kopuru mugatua: 25 lagun.

Izen-ematea, ezinbestekoa: 943 300 732 / idezkaritza@aiurri.com

Oroituz elkarteak, biolentzia parapoliziala hizpide izan zuen

Mikel Aramendiren hitzaldia Basteron

Mikel Aramendi kazetariak "Heriotzaren Triangelua"ren inguruko gertaerak, eta, Franco hil osteko urteetan indar ultraeskuindarren indarkeria ekintzak izan zituen aztergai Basteron, Oroituz elkar-teak antolatuta.

Estatu aparatuen eta ultraeskuindar horien arteko lotura zuzena agerian utziko luketen makina bat datu azaldu zituen bata bestearen segidan. Sistema frankista bukatutzat eman zenez geroztik talde armatu horiek burutu zituzten hilketak, bortxaketak, heriotz mehatxuak, ondasunen aurkako erasoak eta abarrak estadistikoki aurkeztu zituen, urtez urte. Bere aburuz, datuek argi adierazten dute 1977ko ekainean egin ziren lehen hauteskunde orokorren ostean sakondu zela talde parapolizialen indarkeri kanpaina, Gipuzkoan batez ere. Hain zuzen ere, Aramendiren tesiaren arabera, frankismoa ideologikoki sustengatu zuten alderdi politikoez oso emaitza kaskarrak lortu izanak zerikusia izan zuen kanpaina abian jarri zedin.

Sanchez Medrano ultraeskuindarrak idatziz egindako aitortpena aztertu zituen Aramendik hitzaldia lehen partean. Astigarraga eta Andoain bitartean gertatu ziren zazpi heriotzen egiletza leporatu zieten Iturbide andoaindarrarekin



"Heriotzaren Triangelua" bezala ezagutzen diren gertaerak gogoan hartu zituen.

Aramendik bere hitzaldian 70eko hamarkadaren azken aldera eta 80ko hamarkadan Espainiako gobernuaren inteligentzia zerbitzuetan ardurak eduki zituzten makina bat pertsonaren ibilerak gogoan hartu zituen

eta Zabalarekin batera atxilotu zuten Medrano, baina berehala utzi zuten aske. Medranok, aitortpenean, ekintza armatuetan parte hartutako pertsona ugariren izen abizenak eman zituen, eta ez hori bakarrik, baita guztien ibilbidea deskribatu ere.

Migel Castells abokatuak Madrilgo Entzutegi Nazionalen aurkeztu zuen idatzia, baina handik aste batera artxibatu

egin zuten. Errepresio frankistan nabarmendu zen TOPeko (Tribunal Orden Publico) epaileek epaitegietan jarraitzen zuten, eta horiek izan ziren kasua artxibatzea erabaki zutenak.

Aramendik bere hitzaldian 70eko hamarkadaren azken aldera eta 80ko hamarkadan Espainiako gobernuaren inteligentzia zerbitzuetan ardurak eduki zituzten makina bat pertsonaren ibilerak eta adierazpenak hartu zituen gogoan, Casinello eta Saenz de Santamaria militarrek batez ere. Sektore horiek modu argiago nahiz ezkutuan, maiz aitortu izan zuten Espainiaren batasuna auzitan jartzeko zutenei aurre egiteko zilegi zela edozein bitarteko erabiltzea. "Kontrainsurgentzia" etiketarekin definitzen zuten jardun hori.

Madrilgo Jai-Alai danborradaren eskutik jaso zuen asteartean

Oiartzabali saria

Madrilgo Jai-Alai danborradak Joxe Mari Oiartzabali Iñigo Zurita saria eskaini zion astearte gauean. Musikari andoaindarrak bertan izan zen Maria Luisa Zuriarrain emaztearekin batera. Oso esker oneko azaldu zen. 500 lagunez osatu zen danborradaren eta afariaren ostean burutu zen ekitaldia. Oiartzabalek danborradarekin lotutako musika errepertorioa armonizatu eta eguneratu izana eta eskuzabaltasunez jokatu izana azpimarratu dute Madrilgo antolatzaileek.



Oiartzabal Zurita saria jaso zuen unean.

"Joxinixio gudaria" liburuaren aurkezpena



Pello Esnal, Elixabete Garmendia eta Xabier Lasa hizlariak.

Jendetza bildu zen Basteron **Mikel Atxaga** urnietarrak hil aurretik idatzita utzi zuen *Joxinixio Gudaria* nobelaren aurkezpenean. **Jon Unanue** Larra-mendi Bazkuneko lehendakariak liburuaz luze eta zabal hitz egiteko asmotan ziren **Pello Esnal, Elixabete Garmendia** eta **Xabier Lasa** aurkeztu zituen, hasiera emanez ekitaldiari. Hiru hizlariak ere Mikel Atxaga batetik, eta bestetik nobelaren protagonista den Joxinixio Etxeberriaren belau-naldi euskaltzalea goraiatu zuten euren jardunean.

Esnalek aitortu zuen Atxagak ezin bikainago deskribatzen duela garai hartako giroa, bai Andoain baina Gipuzkoa zein Bizkaiko frontean: "Liburuan historia hamaika hilabete eskas irauten du. Andoain, Merdillegi baserrian hasten da eta baserriar, euskaldun eta bertsolari den Joxinixio gerra giroan egiten dituen urratsak kontatzen ditu".

Elixabete Garmendiak Joxinixio nobelako protagonistaren anaia zen Patxi Etxeberria jesuita eta idazle euskaltzalea izan zuen hizpide Basteron: "Etxeberriatarrak oso markatuak zeuden Andoainen, euskaltzale eta abertzale gisa. Gerra heldu zenean, familiak, Patxiaren kaliza eta 1933ko olerki eguneko saria irabazi zuen bere poema liburu (Bost lore) belar metan gorde zituen. Kaliza, gorrien beldur; liburu, nazionalen beldur. Patxi Txinan zen ordurako. Joxinixio-aren heriotza jakin ostean, Patxi adierazi izan zuen Txinan egoteak salbatu zuela heriotz zigorretik".

Xabier Lasak, azkenik, gerra aurrean Andoainen euskaltzaletasunak bizi izan zuen loraldia azaldu zuen. Besteak beste, euskarazko gazte eta helduen antzerki kuadroak, dantza taldeak, euskal prentsako kronikarrek, bertsolari mordoak... izan zituen hizpide.



Etxeberriaren senitarteko Juan Mari eta honen alaba Ana, aurkezpen ekitaldian.



Gipuzkoako Foru Aldundia
Euskara Zuzendaritza

Mozorro desfilean parte hartzeko epea ixtear da



Otsailaren 6an mozorro desfilea egingo dute Andoaingo kaleetan.

nauterizaleenak mozorroak eta karrozak prestatzen ari diren bitartean, azken ordurako lanak utzi dituztenek jakin behar dute inauterietako desfilean parte hartzeko izen-ematea urtarrilaren 29an amaituko dela. Hamar partaidetik beherako konpartsak desfilean atera ahal izango dira, eta Udalak eskaintzen duen diru-laguntza jaso ahal izango dute. Bi baldintza bete beharko dituzte diru-laguntza jaso ahal izateko: 16 urtetik gorako pertsonak izatea eta taldekide guztiek mozorrotzeko garaian motibo berdina eramatea, edota berd in jantzita joatea.

Talde txikiagoen kasuan, diru-laguntza kalkulatzeko hainbat irizpide hartuko dira kontuan: partaide kopurua, gurpilak dituen tramankuluren bat (bizikleta, gurpildun aulkia, karroa...) eta megafonia eramatea.

Izena ematerakoan ere, taldeek desfilean leku finko bat behar duten edota gora eta behera ibiliko diren adierazi beharko dute.

Desfilean parte hartu nahi duen guztiek Basteron eman beharko dute honako ordutegian: 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 19:30era.

OTSAILAREN 6KO DESFILEA ANTOLATZEKO BILERA

Otsailaren 1ean, astelehena-



Ostegun Gizenean eta ostiralean jarduerak antolatuko dituzte Gazte Lokalean.

Urtarrilaren 29an amaituko da mozorro desfile nagusian ateratzeko izena emateko epea. Bastero eman behar da izena, goizez edo arratsaldez


rekin, konpartsen desfilearen antolaketa bilera egingo dute Urigainen iluntzeko 19:00etan hasita. Besteak beste, desfileko ordena erabakiko dute.

EKIMENAK GAZTE LOKALEAN, OTSAILAREN 4AN ETA 5EAN

Otsailaren 4an, Ostegun gizenan, haur eta gazteek Gokiplazan festa egin ohi dute. Hangoa amaituta, arratsaldeko 19:30ean hasita klasiko bihurtu den **Beldurraren Etxea** jarduera antolatuko dute Gazte Lokalean. Egun horretan Anbrosia Olabide Gazte Lokala eta Gizarte Zerbitzuetako eraikina gune beldurgarrian bihurtzen da. Hamar urtetik gorako haur eta gazteei zuzendurik dagoen jardue- ra da.


Biharamunean, berriz, otsailaren 5ean arratsaldeko 17:30etatik aurrera koadri- len arteko **Party lehiaketa** eta merienda berezia egingo di- tutzte. Ezinbestekoa izango da, noski, mozorrotuta azal- tzea.

HITZ-GEZIDUNAK



Intsektu mota	Militanteen jarduna	Gaitza, bekatua
Garratza	Mendi magakla	Harrapaezan!
Pilota txiki		Kontso- nantea
Gizakia prestatu		Pisu apalekoa
Iseka egiten du (Neol.) Futbolari	Daude	Pl., ehun mota
	Talde	Errep., txori mota
* IRUDI KO ESTATUA		Oxigenoa
Ukapena		Infusio mota
Apetaren hasiera	Itxurak	Otana, bokalik gabe
Himno	Selenioa	Neka, una
		Modu atzizkia
		lodoa
Bilo	Pl. hortzen inguruko haragia	Kontso- nantea

HITZ KATEATUAK



Koka itzazu diagraman honako hitz hauek:

8 hizki

- Aitzakia
- Amaierak
- Balantza
- Bekadari
- Biasteri
- Erromesa
- Igorriak
- Iragazki

6 hizki

- Arotza
- Atakak
- Ekarri
- Eroria
- Erratu
- Eskean
- Hamabi
- Iritsi
- Kalaka
- Mastak
- Orbela
- Oreakak

3 hizki

- Adi
- AEK
- Ama
- EKA
- Hur
- laz
- IKA
- Kai
- Lar
- Ler
- Pal
- Tar

5 hizki

- Katua
- Zimur

4 hizki

- Adar
- Alai
- Eper
- Kare
- LIII
- Tema

HIEROGLIFIKOA

KASIK



Noiz izan zineten Irlandan

ERANTZUNAK

221

K	V	I	O	E	L	I
I	I	K	R	E	S	E
K	Z	A	T	R	A	P
N	T	O	V	O	K	U
V	I	N	V	A	M	U
I	R	A	L	O	K	I
K	A	T	E	Z	D	I
Z	I	Z	E	H		
I	O	T	A	B	A	L
A	N	I	A	M	S	
G	M	L				



KIROL ALBISTEAK

Urnietarrak Gipuzkoakoan, hiru txapel lau finaletan

Lau finaletan urnietarrak ziren eta lauretan txapela lortzeko moduan izan ziren. Lastima, eskarmentu handiko Loitegiri txapelak ihes egin ziola. Gainerakoa, Gipuzkoako txapel-dun dira Aitor Aldunberri, Imanol Odriozola eta Eñaut Esnaola. Txema Gonzalez UKE taldeko arduradunak lauren parte hartzea zoriondu du: "Pozik nago egin duten jokorekin eta erakutsitako jokabidearekin. Sekulakoa litzateke lau txapela eskuratzea. Haietaz guztietaz harro egoteko modukoa da. Bide beretik lanean jarraitu behar dugu, lehen lerro horretan jarraitzeko". Zorionak UKE pilota saileko lan talde osoari.



Loitegi, Esnaola, Odriozola eta Aldunberri finalak jokatu ostean.

Kadeteak:
Aldunberri 30-28 Hernani.
Jubenilak:
Odriozola 35-23 Hernani.

Seniorrak, 2. maila:
Esnaola 40-29 Aurrera Saiaz.
Seniorrak, 1. maila:
Loitegi 36-40 Mundarro.

Garaipen bikaina Legazpin

Legazpi 20-25 Urnieta SenM

Primeran hasi dute bigarren itzulia Urnieta Balerdi Harategiak taldekoek, azkeneko jardunaldietako joko onari jarraipena emanez eta ondorioz merzitate garaipena eskuratu. Meritua bikoitza da Legazpiko kantxa oso zaila baita. Gorritxoak, igandean kamiseta urdinarekin, Donibaneren aurka bezala 3-2-1 defentsarekin zelairatu eta atsedendira 11-13 aurretik zeuden. UKEkoek amaierara arte borrokatu zuten eta azken minutuetan 0-5eko partziala lortu zuten. Go-latzaileak hauek izan ziren: Josu Arruarte (5), Jon Sanchez (4), Josu Pagola (4), Eneko Urruzola (3), Gorka Urigoitia (3), Gorka Vicente (2), Beñat Senperena (2), Iñaki Ibañez (1) eta Julen Garcia (1). Nabarmenezkoa atezainen lana,



batez ere Iosu Irigoienena, bigarren zatian meritu handiko geldiketak egin baitzuten. Garaipen honekin sailkapeneko seigarren postuan dira 14 punturekin eta 5 puntuko aldea irekitzea lortu duten Andoaingo Leizaran seigarren sailkatuarekin. Larunbat honetan urteko lehen partida jokatu dute etxean Zumaiaiko Pulporen aurka, 19:15etatik aurrera.

Zarautz 23-22 Urnieta SenN

Porrot gazi-gozoa, adliz, Urnieta Larrialdiak senior neskena. Zarautzen irudi bikaina eskaini zuten baina tamalez partidaren amaieran garaipenak ihes egin zien. Taldea baja ugariarekin joan zen Zarautzera, baina joan zirenek lan bikaina egin zuten defentsan, baita Amaia Jauregi eta Oihane Sanchez atezainek ere.

Igande honetan Urnietan On Bosko krosa

On Bosko krosaren bigarren edizioa igande honetan irten-go da Salesiar ikastetxetik bertatik, goizeko 11:00etan hasita. Lasterketak Urnietako kaleak zeharkatuko ditu zazpi kilometroko inguru dituen ibilbide bat osatuz.

Krosa amaitu eta gero ikastetxean bertan dutxa eta hamaiketako bero bat hartzeko aukera izango da. Sariak eta zozketa egingo dute ondoren, lasterketan irtengo diren parte hartzaileen artean.

Besabi-Leitza mendi irteera larunbat honetan

Larunbat honetan Zanpatuz elkartek urteko lehen irteera antolatu du. Besabitik atera eta Leitza-raino joango dira, zailtasun ertaineko sei orduko marxa eginez. Martxaz beterikoa izango da eguna, Leitza inauteria ospatzen baitute eta. Bertan duxatu eta bazkaldu eta gero, inaute-

riez gozatzeko aukera izango da. Urnietara itzultzeko bi aukera egongo dira: 20:30ean edota goizaldeko 04:00etan. Mendizaleak Martxo autobus geltokitik goizteko 06:30ean abiatuko dira. Handik Besabira igoko dira eta 06:45ak aldera Leitza-rainoko marxa egingo dute.

Areto futbol txapelketa, bigarren fasea abiatzear da

A taldea, 1. jardunaldia:

KELER-OZU
Lar, 23. 15:00. Allurralde.
DAD KUTXA-TXALAKA
Ig, 24. 10:50. Arrate.
EKHIA-AURE MAITON
Ig, 24. 17:00. Allurralde.

B taldea, 1. jardunaldia:

ACADEMIA-DRINK TEAM
Lar, 23. 16:00. Allurralde.
PAUSOKA-EGUR
Ig, 24. 09:50. Arrate.
EXTREMEÑO-ONDARRETA
Ig, 24. 11:50. Arrate

Ganbara saski taldea

Aurreko asteburuan:

TAKE 45-48 Ganbara SenM
Oiarso 39-62 Ganbara JubM
Ganbara InfM 25-53 BKL

Asteburuan Allurralden:

Ganbara JubM-Askatuak
12:15. Allurralde.
Urtarrilak 23, larunbata.

Futbola, asteburuko partidak

ERREGIONAL OHOREZKOA

18. jardunaldia:

Euskalduna 0-0 Beti Gazte

Sailkapena:

1. Tolosa 41 puntu
11. Euskalduna 22 puntu

19. jardunaldia:

Orioko-Euskalduna

PREFERENTE MUTILAK

16. jardunaldia:

Urnietak 2-0 Allerru

Sailkapena:

1. Trintxerpe 38 puntu
5. Urnieta 30 puntu

17. jardunaldia:

Martutene-Urnietak



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

Eskubaloia, senior mutilak

Aurreko asteburuan,

12. jardunaldia:

Leizaran 21-31 Urola
Legazpi 20-25 Urnieta

Sailkapena:

1. Donibane 25 puntu
6. Urnieta 14 puntu
7. Leizaran 9 puntu



ELKARRIZKETA

“Asko ikasi dut Realean; isiltzen ere bai”

Adin nagusira iritsi berria da. Autoko gida-baimena lortzear da, Zubietara joateko etxera bila etortzen zaion taxia gehiago etorri ez dadin.

Izar txiki bat da, laster izar handia izan litekeena, baina haien harrokeria jarrerarik erakusten ez duena. Gauzak garbi ditu kirolean eta ikasketen arloan.

Gauzak garbi ditu: kirolean, ikasketen arloan... Etorkizun opa-roa iragartzen diote, atzerrian akaso, baina berak urrun ikusten du egun hori. “Reala talde hobea egitea da erronka, eta ikasketak hemen bukatzea”. Errekalde kaleko parkeko oroitzapenekin gogoratu da, elitean dagoela: “han hasi zen dena”.

Zaila da, gero, zu elkarrizketa-tzea. Realarekin gestioa egin behar da...

Beno, geroz eta elkarrizketa gehiago ematen ditut, eta Realak horrela antolatua dauka kontua.

Dagoeneko dozenaka eman dituzu, futbolari ezaguna zara, ezta?

Ez zait astuna egiten. Perspektibarekin begiratzen duzu. Gero eta oihartzun handiagoa lortzen da. Egia da egunen batean pentsatu izan dudala, ‘orain elkarrizketa, betiko galderak berriro’, baina gure lanaren parte bat ere bada, ez? Askotan galdera berak errepikatzen dituzte: non hasi nintzen, nire futbolari gustukoen... gero eta ezagunagoak



“Futbola da nire bizitza, baina ikasketak alboratu gabe”.

egiten garen heinean galderak ere aldatzen joango dira, noski. Gehiago ezagutuko gaituzte, eta betikoak ez diren beste galdera batzuk egin. Batzuetan sententzia izan dut, elkarrizketa bat eman, eta hilabete lehenago emandako berbera izatea. Orain aste batzuk ETBko

albistegi batean ere elkarrizketa ninduten, eta horrek erakusten du, pixkanaka ezagunagoak gara.

18 urte bete berriak, Realeko aurrelaria, loreak han eta hemen zure jardunarentzat... Non eta nola hasi zen istorio hau?

Kiroldegiko futbol zelaian. Endika anaia entrenatzen, eta ni baloiari kolpeka. Eta etxe azpiko parkean, Errekalde kalean. Milaka ordu sartutakoa naiz han. Ni neu, Iker Hernandez... bera orain Barakaldon dago, eta ni Realean! Etxera sartu aurretik, bazkaldu edo afaldu, eta segituan parkera jaisteko irrikan egoten ginen. Gaur egun oso aldatuta dago etxe azpiko parke hori. Uste dut jende gutxiago ibiltzen dela parkean, eta tristetu egiten nau.

Zu zeu, Jokin Lizeaga, Iker Hernandez, Mikel Iturria, pilotari, erremontista... zer dauka Urnietak?

Arrazioa garbia da. Txikitatik haurra kirola egitera bideratzen da Urnietan, eskola kirolaren bitartez. Asteburu batean ekitaldiren batera hurbildu baino lan errazagorik ez dago, Urnietan dagoen kirolerako grina ikusteko. 6.000 biztanleko herria izan eta dozenaka ume dabilta egurrean. Izen batzuk bota dituzu, baina izenez gain, klub mailan ere jende askok egiten du kirola: futbola, eskubaloia...

Non dago, egun, Nahikari Garcia, 18 urte bete berriak?

Futbola eta ikasketan artean, erdi eta erdi, hortxe. Medikuntza ikasten ari naiz, bigarren urtea, eta Realean jokatzen dut. Futbola da nire bizitza, baina ikasketak alboratu gabe. Oreka horri eusten saiatzen naiz. Familiarentzat oso garrantzitsua da nik ikasketak egitea, eta familiaren esanak oso garrantzitsuak dira niretzat. Futbola eta medikuntza, elkar elikatzen direla esango nuke. Futbolaria izatea amets bat da niretzat, baina era berean, futbolarik ikasketekin jarraitzea baimentzen dit. Aldi berean, eta nota onak lortzen ditudan heinean, futbolearen are eta gusturago aritzen naiz.

Eta non ikusten duzu, zure burua, demagun 5-7 urte barru?

Ba egia esan ez dut denbora asko ematen horretan pentsatzen. Badakit medikuntza ikasketak bukatu nahi nituzkeela, eta futbolari izaten jarraitu ere. Donostian izango den, Espainiako beste talderen batean edo atzerrian... ez dakit, 18

urte ditut, oso gaztea naiz, urrun geratzen zait 2021a. Tira, ez dut ukatuko noizean behin, pentsatu izan dudala, AEBetako, edo Alemaniako futbol ligan jokatuko banu, zer?, baina ez dut denbora asko pasatzen kontu horiekin.

Nolatan medikuntza? Ikasketak gogorak dira...

Ama erizaina da, eta beti erakarri izan nau lanbide horrek. Probatzeko gogoia neukan, eta motibazio horregatik aukeratu nuen medikuntza. Askotan entzun dut, medikuntza ikasi behar nuela esan eta ‘erotuta zaude?’ entzun. Ni aurrera. Ikasketak gogorak dira, bai, ordu asko eman behar dira liburuekin, baina era berean asko ikasten ari naiz, alor askotan. Hartu behar nuen trenaren, hartu dut, ikasketak gainditzen ari naiz... Gustura nago.

Zer ikasi duzu Realeko jokalaritza jardunean?

Gauza asko. Disziplina, jende ezberdinarekin egoten, konbinentzia, errespetua... Normalean ni baino helduagoa den jendearekin hazi izan naiz, eta horrek asko lagundu dit: gauzak ulertzen, jendearekin laguntzen, gustuko ez duzun egoeraren bat onartzen... Genio biziakoa naiz normalean, eta isiltzen ere ikasi dut.

18 urterekin gazte gehienek buruan parrandak, lagunak eta beste izaten dituzte buruan. Zuk ez?

Ez. Nik aukeratu dut bizitza hau. Txikitatik nekien bizitza hau edukitzeko bazterrean zer utzi beharko nuen, eta asuntuta baldin baduzu, errazagoa egiten da aurrera egitea. Lagu-



Andoni Urbistondoren elkarrizketak Urnietako kirolariel. Lehena, Jokin Lizeagari.



KIROL ALBISTEAK

nek badakite nire lehenetasunak zeintzuk diren. Batzuetan elkartzen gara, ziur aski ez nahi beste, baina eurek ere ahalegin handia egiten dute asteburuetan ni futboleant jokatzen ikusteko, eta eskertzen diet. Familiak ere babes handia ematen dit. Esango nuke berarek moldatu dutela nire egungo izateko era, egun dudan ikuskera, eta alde horretatik egoera espero bezalakoa da. Pozik nago. Ez nuke futbola aldatuko parrandagatik.

Nor da zure aholkularia, une gaiztoetan entzuten zaituena?

Ama. Bera egon da une onetan, eta txarretan. Berak ezagutzen nau ondoen, eta berak lagundu dit gauzak ulertzen. Bai futboleant, eta baita arlo pertsonalean ere. Juanjo Arregi eta Jorge Vilda hautatzaileek emandako laguntza eskertu nahi nuke.

Gizonezkoen futboleant ohikoak dira harropuzkeri, berekoikeri keinuak...

Hori da gizkonezkoen futbolarekin daukagun ezberdintasunik handiena. Noski, egongo da, bakarren bat, bestea baino tenteagoa, baina ez dago gizonen futboleant dagoen antzerkia, ikusizunerako gehiegizko joera hori. Emakumezkoen futbola askoz ere sinpleagoa da, eta horrek egiten du berezia.

Asko harritu egiten dira, emakumezkoen futbol partida bat ikustera joan, eta maila ona duzuela jabetzeant. Zergatik dago kontra-ko pentsetzeko joera?

Fisikoki ez dago zalantzarik, askoz indartsuagoak dira, eta emakumeak ez gara inoiz maila horretara iritsiko. Teknikoki, aldiz, parean gaudela esango nuke. Izaeraz eta, aldiz, emakumeak askoz sinpleagoak, sanotagoak garelako uste dut. Ez gara txorradak egiten hasten. Futboleant jokatzen dugu, edo saiatzen gara, eta kito. Ez dago besterik. Jendeak pentsetzen duenaz... Ni Añorgan nengoela gertatu zitzaidan, direktibo bat etorri, eta harrituta geratu zena nola jokatzen genuen ikusi zuenean. Jendeak partidariak ikusi gabe epaitzen du, eta eskatuko nukeen gauza bakarra, hauxe: ikusi, baloratu eta epaitu. Ziur nago emakumezkoen futbol partida pare bat ikusi ondoren jendeak dituen aurritzi batzuk desagertu egingo direla.



"Garaipen bat lortzen badut, beste bat nahi dut. 3 gol sartzen baditut 4 sartu nahi ditut".

Realeko irudi batzuk ikusita, jokalarien artean giro ona duzuela sumatzen da. Hala da?

Talde bat gara, ordu asko pasatzen ditugu elkarrekin eta harreman ona daukagu gure artean. Futbolariak gara, baina lagunak ere bai. Realean oso giro ona dugu, eta hori funtsezkoa da niretzat. Mutilen talde batzutan ere badago, ez pentsa.

La hiru urte Realera iritsi zinenetik eta ordezkazekin bilakatu zara. Ze erronka dituzu aurrerantzeant?

Hobetu. Etengabe. Lortu dudana gatik, iritsi naizen tokiraino iritsi naizelako pozik nago, ez nuelako espero. Pentsa, 16 urterekin Espainiako Super Ligan, askoz ere beteranoagoak, hobeak diren jokalarien aurka aritu izan naiz, eta hamaikakoan zelairatuta Realarekin! Dena joan da eskatu bezala, baina ezin naiz konformatu.

Konformagaitza omen zara.

Lehiakorra. Gehiegi, ziurrenik. Txikitan txapetan jokatzen ge-

nuenean ere irabazten utzi behar zidaten, bestela sekulako haserreak hartzen nituen. Anbizio handia dut. Garaipen bat lortzen badut, beste bat nahi dut. 3 gol sartzen baditut 4 sartu nahi ditut. Nire nortasuneko makuluetako bat anbizioa da. Hazten jarraitzeko, funtsezkoa da.

Eta medikuntza eta futbolaren artean aukeratu behar bazenu?

Ez dut uste bata edo bestea aukeratzeko beharrean egongo naizenik. Orain biak partekatzen aukat, ondo moldatzen naiz, eta antzera jarraitzen saiatuko naiz. Realak erraztasunak ematen dizkit, eta gustura nago. Onartua daukat, gauzak normal, ez dudala medikuntza dagokion urteetan bukatuko, baina futbola ere garrantzitsua da niretzat. Helburua medikuntza bukatzea da, etorkizunean lanbideren bat edukitzeko, baina futbola alboratu gabe. Urte batzuk gehiago beharko ditudala agian? Onartzeko moduko ordaina da.

Agerikoa da soldata kontuetan eta gizonezkoen futbolarekin zerikusirik ez daukazuela...

Futboleant jokatzen dugun neska gehienek dakigu ezin izango dugula futbolari esker bizi iraun. Dirua aurreztu eta etorkizunean lasai bizi ere ez, noski. Gauzak pixkanaka aldatzea nahi genuke, baina ni, eta ni bezala futbolari gehienak, ziur gaude futbola bukatzeant beste ofizioren batean jardun beharko dugula bizitza egiteko. Pausoak eman, ematen ari gara, soldaten arloan, baina mantso. Nik, dena den, soldata mamitsua jasoko banu ere, ikasketak egin, lanbideren bat izateko. Futbola bizitzako aro bat da. Orain mundo horren barruan nago, baina egunen batean ez naiz egongo, eta ordurako prest egon behar duzu.

Atzerria aipatu duzu. Ze herrialde atsegin duzu?

AEBak, Alemania, Frantzia... baina ez futbolaren ikuspegi soiletik. Herri horietan emakumeekiko, emakumeen kirolarekiko errespetua handia da. Nik behintzat kirol kultura hori hartzen dut erreferentzi moduan. Zergatik mutilak bai, eta emakumeak ez? Hori aldatzen saiatu behar dugu gurean, beste leku batzuetan lortu dutelako.

Irakurri dut agian garaieraz txiki samarra zarela, eta horrek zure progresioa kaltetu dezakeela.

Futboleant garaiera garrantzitsua da, baina ez erabakigarria. Nik ni baino emakume garaigoek ez dituzten beste ezaugarri batzuk ditut, eta horiei etekina ateratzen saiatzen naiz. Azkartasuna, adibidez.

Reala motz, txiki geratuko zaizula diote askok...

Ez dakit. Horretarako asko ikasi behar dut, gauza garrantzitsuak egin. Atzerrian futboleant jokatzea lortzea ez da erraza. Nire ustez, Espainiako Superligan ari garen nesken helburua lehiaketa hori gero eta indartsuago egitea da. Nire ametsa ez da atzerrira joan, eta talde onenetan jokatzea. Nire ametsa Superliga eta Real hobetzea da. Egunen batean Realarekin tituluren bat lortzea, nahiz eta erronka zaila izan. Orain 4. postuan gaude, gero eta hobeto, eta hori da bidea.

ELKARRIZKETAK
Askotan galdera berak izaten dira: non hasi nintzen, nire futbolari gustukoena...

OROITZAPENAK
Etxe azpiko parkean, Errekalde kalean hasi nintzen baloiarekin; aldatua dago gaur, tristetzen nau horrek

18 URTE
Futbola da nire bizitza, baina ikasketak alboratu gabe. Oreka horri eusten saiatzen naiz

ETORKIZUNA
Pentsatu izan dut, AEBetako, edo Alemaniako ligan jokatuko banu, zer? Ez dut denbora asko pasatzen kontu horiekin

REALA
Gauzak ulertzen, jendea-ri laguntzen, gustuko ez duzun egoeraren bat onartzen ikasi dut... Genio bizikoa naiz, isiltzen ere ikasi dut.

GAZTETASUNA
Nik aukeratu dut bizitza hau. Pozik nago. Ez nuke futbola aldatuko parrandagatik

IKASKETAK
Helburua medikuntza bukatzea da, etorkizunean lanbideren bat edukitzeko, baina futbola alboratu gabe

LEHIAKORTASUNA
Anbizioa handia dut. Txikitan txapetan irabazten utzi behar zidaten, ez haserretzeko

EMAKUMEZKOEN FUTBOLA
Fisikoki alde handia dago, baina bestelakoan oso antzekoa. Eta antzerkirik gabekoa, sanoagoa

EZAUGARRI FISIKOAK
Txikia naizelako arduratuta? Orain arte ondo moldatu naiz, ez nau neurriak arduratzen

Oharra: Biltzar argitaratzaileek ez dute beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko erantzukizunik.

Aiurri
BETERRI-RURINTZAKO ASTEKARIA

Manuel Larramendi
Kultur Bazkuna



TOKIKOM

Ekoizlea:

ERROITZ
BALTZU MUGATUA

Laguntzaileak:



Aldizkari honek
bi udalerrri hauen
dirulaguntza jasotzen du:



Argitaratzailea:



Aiurri eskuragarri:

Etkez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 35 eurokoa da. Urnietan, 30 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
@: andoain@aiurri.com
Webgunea: www.aiurri.com

Zuzendaria:

Jon Ander Ubeda.
andoain@aiurri.com
Erredaktoreak:
Xabier Lasa, Joxeba
Lizeaga, Izarne Olano
eta Jon Unanue.

Diseinua:

Maddi Trubuelo eta
Jon Ander Ubeda.
diseinua@aiurri.com
Publizitatea:
Fernanda Irazu.
publizitatea@aiurri.com

Zorion agurrak, merkatu

txikia:
diseinua@aiurri.com.
www.aiurri.com.

Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.

Kudeatzailea,

banaketa
arduraduna:
Garbiñe
Ugartemendia.
idazkaritza@aiurri.com
Tel.: 943 300 732

Banatzaleak:

Mikel Arregi
(Andoain), Garazi
Usandizaga (Urnietan).
Inprimategia:
Zeroa Multimedia.
Huarte-Iruñea.

Agenda

URTARRILAREN 22TIK AURRERA • AGENDAN IRAGARTZEKO: andoain@aiurri.com

Zinema

Andoain, Bastero
■ "Sufragista".
Larunbata, 23. 19:30, 22:00.
Igandea, 24. 19:30.
Astelena, 25. 19:30, 22:00.

Urnietan

■ "Wilaya" Saharako kanpamenduetan bizi diren bi ahizparen istorioa. 22:00. Urtarrilak 22, ostirala.
■ Saharari buruzko bi ikusentzuzeko: "Egiaren hazia" eta "Oroimenaren lekukoak". 17:30-19:30. Lekaio. Urtarrilak 25-29.

Antzerkia

Andoain, Bastero
■ "Happy end", Vaiven taldearen komedia. Gaztelaniaz. 21:30. 12 euro. Urtarrilak 29, ostirala.

Andoain, Bastero

■ "Futbolariak eta printzesak", parekidetasunean eta berdintasunean hazi eta hezteko antzezlan. 17:30. 3 euro. Urtarrilak 24, igandea.

Musika

Andoain
■ Alberto Agirre abesbatzak abesteko gogo duen edonori parte hartzeko gonbidapena luzatzen dio. Entseguak: 19:00-21:00. Olagain musika eskola. Urtarrilaren 21etik hasita, asteartero eta ostegunero.
■ Iheskide eta Eratu musika taldeak zuzenean. 22:30. Gaztetxea. Urtarrilak 30, larunbata.

Solasaldia

Andoain, Bastero
■ Birgit Vanderbeken 'Mejoillones para cenar' liburua aztergai. 19:00-20:30. Bilera gela. Urtarrilak 26, asteartea.

Pailazoak

Andoain, Bastero
■ "Amalur", Pirritx eta Porrotxen ikuskizuna. 18:00. 5 euro. Urtarrilak 22, ostirala. 16:30, 19:00. 5 euro. Urtarrilak 23, larunbata.

Ikastaroa

Eskualdea
■ Helduen heziketa: Bigarren Hezkuntzako Graduatua, euskera, ingelesa,... Andoain: 943 30 40 21. Hernani: 943 33 53 18.

Batzarrak

Urnietan, Lekaio
■ EH Bilduren batzar irekia. 19:00. Lekaio. Urtarrilak 21, osteguna.
■ Gobernu taldeak Legegitzaldi plana aurkeztuko du. 19:00. Lekaio. Urtarrilak 21, osteguna.

Lehiaketa

Andoain, Bastero
■ Martxoak 8 iragartzeko kartel lehiaketa. Sari bakarra, 350 eurokoa. Epea: Otsailak 3.

Irteerak

Urnietan, Zanpatuz
■ Besabi-Leitza. Urtarrilak 23, larunbata.

Andoain, Euskalduna

■ Santa Barbara-Irimo(898)-Elosua-Elosumendi (878)-Hirukurutzeta (931)-Azkarate ibilaldia prestatu du. Urtarrilak 24, igandea.

Farmaziak

Eskualdea
■ Andoain: Pajares. Urnietan: Urrutia (Hernani). Urtarrilak 23 eta 24.
■ Gauzez: Urrutia (Hernani). Urtarrilak 23 eta 24.

Jardunaldiak

Urnietan, Sarobe
■ Bake eta bizikidetzari buruzko III. jardunaldiak. Bi hitzordu datozten egunetan:
■ "Glencree, (bake prozesua), elkarrekin egindako bidea" dokumentala ikusgai. Eta, horren ostean, bertaraten den jendearen artean solasaldi bat antolatuko da. 11:00. Sarobe. Doan. Urtarrilak 23, larunbata.
■ Hitzaldi bikoitza. Lehena, **Aintzane Ezenarro** Gogora institutuko zuzendariaren eskutik: "Memoria landu: zergatik eta zertarako". Jarraian, **Sabino Ormazal** Argituzeko kidearen aldetik "Memoria partekatu baterantz" hitzaldia. Azken hori Errenterian 1956tik 2012ra bitarte izan ziren giza eskubideen urraketei eta indarkeria-ekintzei buruzkoa. 19:00. Sarobe. Doan. Urtarrilak 28, osteguna.

Inauteriak

Urnietan
■ Mitologia izango da gai nagusia aurtengo inauterietan. Otsailak 6, larunbata.

Andoain

■ Inauteriak iristear dira. Ostegun Gizona: Otsailak 4, osteguna. Konpartsen desfilea: Otsailak 6 eta 7.

Batzarrak

Eskualdea
■ Urnietan. 19:00. Urtarrilak 26, asteartea.
■ Andoain. 19:00. Urtarrilak 28, osteguna.

Txapelketa

Andoain
■ Euskal Herriko VIII. mus txapelketa. 22:30. Irunberri elkarte. Urtarrilak 22, ostirala.

ZORION AGURRAK

ZORIONAK



Amaia Errazkin
Ezeizak 19 urte beteko ditu urtarrilaren 27an. Zorionak! Amona Miren eta aitona Esteban.

ANDOAIN

ZORIONAK



Urtarrilaren 24an **Axelek** 5 urte bete. Maite zaitugu. Egundat lehenago aitona Antoniori ere zorionak!

ANDOAIN

ZORIONAK



Zorionak **Aritz**, lau urte betetzen dituzulako. Ondopasa eguna, amona eta aitona partetik.

URNIETA

ZORIONAK



Berrogeita hamar ez dira gutxi! Segi horrela, beti gazte! Baietz beste 50! Zorionak Xabi. Etxekoak.

ANDOAIN

Oso erraza da, eta dohainik: diseinua@aiurri.com

Santa Agedako erronda prestatzeko entseguak



Aurten ere **Manuel Larramendi Kultur Bazkuna** otsailaren 4an Santa Ageda bezperako erronda antolatuko du, herriko beste elkarte, ikastetxe eta talderen partaidetzarekin. Aurtengo berezitasuna zera da: otsailaren 4a Santa Ageda bezpera izateaz gain Inauterietako Ostegun gizona ere bada, baina horrek ez du eragotziko urtero-urtero koplak kantatzera elkartzen den ehun lagun inguru horrek bere erronda egitea, 18:00tan hasita.

Irteera Larramendi Bazkunaren Dr. Huizi kaleko egoitzaren parean izango da, behin bertako mastan Santa Ageda eguna Euskal Herriko eguna dela gogorarazten duen ikurriña lau haizeetara ipini ondoren. Jarraian, herriko kaleetan barrena ibiliko dira kantari. 20:30ean emango diote amaiera errondari.

Santa Ageda bezpera iritsi aurreko egunetan errondan parte hartuko duten askok koplak eta kantak prestatzeko aukera izango dute, **Ramon Beraza** musikariaren zuzendaritzapean.

ENTSEGUAK HILAREN 27AN ETA OTSAILAREN 2AN

Ahotsak prestatzeko bi saio egingo dituzte: urtarrilaren 27an izango da lehenengoa, asteazkenarekin, 20:00tan Pio Baroja kalean dagoen Ambrosia Olabide Gizarte Zerbitzuen atarian. Bigarrena eta azkena, toki berean, otsailaren 2an izango da, asteartearrekin, 20:00tan ere.

Edozeinek parte har dezake errondan, tradizioak agintzen duen bezala janztea eta kantatzea dira bi baldintza bakarrak, eta ahal dela entsegetara joatea. Aurten, antolatzaileek bereziki eskertuko dute andoaindarren eskuzabaltasun ekonomikoa ahalik eta txanpon eta bilerterik handienak botaz atariz atari ibiliko den maindirera.

Erronda amaitu ondoren afaria egingo dute Berrozpeko Ontza elkartearen zuzendariak. Izena emateko azken eguna otsailaren 2an izango da, iluntzean egingo den entseguan. Egunean bertan ezin da izenik eman afaritara joateko.